

Enkarterriko kronika

1. Sarrera gisa

Erdaraz idatzi zuen Pio Baroja zenaz baliaturik, hona hemen Enkarterri buruzko kronika laburra. Guk ere, Pio Barojaren antzera, errepublikar Enkarterri nahi eta bultzatuko dugu Euskal Herri osoko Errepublikaren barruan, *“eulirik gabe, fraiderik gabe eta karabinerorik gabe”* noski.

Txapelaundien kontua da eskuartean dagoena. Dudarik ez. Baina talde literarioaz haratago doa gurea. Izan ere, Errepublika berri horretan, ekonomia arloan honelako helburuak ditugu aztergai: inflaziorik gabe, langabeziarik barik, kapital espekulatzailerik gabarik eta kanpo-zorrik barik.

Errepublika hori martxan jartzeko, ez dugu inolako sekretupeko erakunderik asmatuko. Alderantziz, proposatzen dena erabat gardena da, irekia, zientzian oinarritua, laikoa, eta Enkarterriz haratago Euskal Herri osora hedatzeko prest izango dena. Kideak separatistak, erabat independentistak izan beharko dira, hots frantziar eta espainiar estatuetatik separatistak; horra, bada, baldintza bakarra taldekidea izateko.

Hemengo euskalduna, txapelaundi bihurtuz, Enkarterriren independentziaz, eta berau hedatuz, Euskal Herriaren independentziaz arituko da etengabe, pozik eta alai, Spinoza zaharrak nahi zuen moduan, ezelako paradisuren bila, inolako malenkonia historikorik gabe.

Inguru eder eta garbia nahi dugu, bakezaleak gara etxean eta ausartak ametsetan, kontzientzia nazional eta euskalduna dugu, ez gara frantsesak, ezta espainolak ere. Kantak dioenez, ez gara zaldunak, ezta aberatsak ere, euskaldunak gara, jende xumeak.

Individuakeria mota guztien gainerik, eta taldekeria guztien azpitik, abertzaleak gara eta, era berean, munduko hiritarrak, euskal hiritar eta enkarterritar garen heinean.

Soilik euskara erabiltzen dugu barrurako eta *lingua franca* kanporako, ingelesa alegia. Baina egia esan, txapelaundiak linguistikatik kanpo ibiltzen gara.

Estatu gabeko herri honentzat, estatuak dirauten bitartean, euskal estatu bat eraikitzen ahaleginduko gara. Gero gerokoak...

2. Enkarterri: atzo, gaur eta bihar

Enkarterri bere osotasunean hartuko dugu. Ibaizabal eta Kadagoa ibaien arteko Enkarterri bitan banatua azaltzen zaigu:

(i) Alonsotegi, Gueñes, Gordexola, Zalla, Balmaseda, Sopuerta, Galdames, Artzentales, Turtzioz, Karrantza, Lanestosa; eta

(ii) Barakaldo, Trapagaran, Sestao, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Zierbena, Abanto, Muskiz.

Atzoko Enkarterrin aipatzekoa da toponimia eta euskararen arrastoak; gaurko Enkarterrin euskaldunak eta ia euskaldunak dira nabarmenekoak; biharko Enkarterri izango dugu aztergai Euskal Herri osoaren etorkizunean.

Hurrengo atalean, erdara batuan zoritxarrez!, gure Enkarterri-ri dagokion informazio interesgarria¹.

3. Atzoko Enkarterri: euskara aztergai

Eztabaida luzea, zenbaitetan mamitsua, askotan aurreiritziz betea, gehienetan ideologia bati zein besteri lotua. Batzuek dena frogatu dute betiko, den hori edozein delarik.

Gurea ez den Fernández Palacios-ek egindako lana² benetako mugarrria da Enkarterriko toponimoak eta euskal toponimoen aztarnak ikertzeko. Irakurtzen dakienarentzat nahiko argi dago, iluntasunak iluntasun, gaiaren muina. Bejondeigula.

4. Gaurko Enkarterri

Euskaldun askotxo bizi gara bertan, nahiz eta sakabanaturik egon.

Hona hemen zenbait datu³:

B (biztanleria, 2005eko erroldan),

E (euskaldunak, 2001eko datuen arabera) eta

IE (ia euskaldunak, 2001eko datuen arabera).

Enkarterri osoan: **B**: 294. 503; **E**: 35.012; **IE**: 71.809.

Enkarterri zentzu hertsian (hots, Alonsotegi, Gueñes, Gordexola, Zalla, Balmaseda, Sopuerta, Galdames, Artzentales, Turtzioz, Karrantza, Lanestosa) %13,8a da euskalduna.

Abanton %16,2a; Barakaldon %9,8a; Muskizen %15,7a; Ortuellan %14,4a; Portugaleten %12,7a; Santurtzin %12,1a; Sestaon %11,2a; Trapagaranen %14,9a; Zierbenan %14,8a.

5. Biharko Enkarterri

1 Ikus <http://somo.blogcindario.com/2010/06/00355-encartaciones-de-bizkaia-colonizaci-oacute-n-romana.html>; <http://somo.blogcindario.com/2010/06/00356-encartaciones-de-bizkaia-la-ruptura-impuesta.html>; <http://somo.blogcindario.com/2010/06/00357-encartaciones-de-bizkaia-la-fragmentaci-oacute-n-feudal.html>; eta <http://somo.blogcindario.com/2010/07/00358-encartaciones-de-bizkaia-bizkaiko-enkartazioak.html>.

2 Ikus *Lengua e Historia del Asón al Cadagua (épocas prerromana y romana)*: <http://www.ucm.es/BUCM/tesis/ghi/ucm-t26714>. Halaber, ikus <http://es.scribd.com/doc/78730592/Enkarterri-eta-euskara>.

3 Ikus <http://www.datutalaia.net/>.

Biharko Enkarterrik Bizkaian kokatzen segituko du, nahiz eta Bizkaiko bizkaieratik kanpo egon. Baina Bizkaiaz baino haratago doa. Hain zuzen ere, Euskal Herriaren etorkizunarekin egongo da lotuta.

Euskalkia euskara batua izango da. Bera AEKn eta beste zenbait euskal erakundetan, Ikastoletan eta D ereduko eskola eta institutuetan erabili eta hedatuko da. Enkarterriko HITZA erabiliko da BERRIAz gain. Euskal Unibertsitatea bultzatuko da lehengo UEUren bidez, eta euskal idazle (on)ak sortuko dira nonahi.

Politikan Euskal Herri osoarekin batera arituko da, euskal konfederazio berri batean parte hartuz. Konfederazio horrek Basgondadak, Nafarroa garaia eta Iparraldea izango ditu oinarri. Baskongadetan, Bizkaiairen barruan kokatuko da Enkarterri, baina estatus berezia edukita.

Politikaz haratago, ekonomiari ere begiratu behar diogu. Interes tasak banku zentralek jarri dituzte azken ehun urte, batez ere monetaren atzeritar truke-tasak egonkortzeko. Hala ere, 1990ko hamarkadatik, banku zentralek diru-merkatua kredituz bete zuten interes-tasak jaisteko, eta, beraz, merkatu-prezioa eta aktibo, bono eta higiezin errealeen tasa-kapitalizazioa puzteko. Hyman Minsky-k egoera horri finantza-zikloen Ponzi fasea deitu zion⁴ non bankariak, zorren merkatariak izanik, batez ere, eskuratzen dituzten aktiboekin eta merkatuan saltzen dituzten pasiboekin ari baitira jolasten etengabe.

2005erako, sistema hain gailargaturik zegoen ezen sektore publikoak mailegu txarrak egindako mailegu emaileei dirua eman baitzion. Horrela, kreditua inbertsio ukigarrian, hots, lanpostu publikoetan eta enpresa txiki eta ertainetako lanpostuetan erabili barik, kredituak sorturiko aktibo-prezioko inflazioak, ondorioz, langabezia ekarri du.

Finantza-kapitalismoan bizi gara eta egoera eta aro berriari aurre egin behar diogu. Horretarako, agian ondoko lanak⁵ lagungarri izan dakizkiguke. Hala biz!

4 Ikus *The Financial Instability Hypothesis*, <http://www.levyinstitute.org/pubs/wp74.pdf>.

5 Ikus *Finantza-Kapitalismoa*, 2 bol, Utriusque Vasconiae (2011). Halaber, ikus Diru-Teoria Modernoaren inguruan murgiltzen diren zenbait autoreren lanak: <http://es.scribd.com/doc/57437409/Diru-teoria-moderno>.